



Laguntzailea



HITZALDIA

Eliza berri bati begira

Iñaki Beristain



Errezildarra izatez. 66 urte ditut. Hamaika urterekin Arantzazura ikastera etorria eta, fraidebidea eginik, 1971an apaiztu nintzen. Eta harrezkero Arantzazun: abesbatza zuzentzen, Arantzazu aldizkariaren zuzendari 2000. urteaz geroztik. Komunikabideetako lana egitea tokatu zait: 1988. urteaz gero Euskal Telebistan ari naiz «Egi Bidean» programa egiten. Euskadi irratiz igande goizetako meza ematen dugula bada ia 29 urte. Ebanjelizazio-lanean eta Arantzazuko Santutegiko pastoral-lanean buru-belarri sartua.

Elizaren gaurko egoera nondik eta nola dator. Zeintzuk izan dira hona ekarri gaituzten urrats batzuk. Eta nola gaude gaur. Itxaropenik sortu da Aita Santu berriarekin. Aztertzea berak orain arte erakutsi duen eliz eredia: apala, zerbitzaria, irekia... Zer espero dezakegu. Nola berri elizarekiko gure leialtasunak. Nola erakutsi erakundearen aurpegi berria. Prozesu pertsonalak eta elkartekoak. Alde batera utzi ezin ditzakegun konpromisoak. Eliza berri bat geuk gozatzeko eta gizarteari gozatzeko eraiki dezakegu. Itxaropenaren ordua da.

NON: ZALDIKO MALDIKO elkartean, Ansoleaga karrika 9. - Iruñea
NOIZ: 2014ko maiatzaren 15ean, ostegunarekin, 19:30ean